

EGUNEKO DIANAK

Volkswagen



Volkswagen germaniar ibilgailu enpresak 100.000 milioi pezeta (5.000 milioi libera inguru) inbertituko ditu Nafarroako Seat Landabeneko faktorian. Inbertsio honi esker, Iruñeko lantegiak 5.000 langile berri izango ditu eta egunean 1.200 ibilgailu fabrikatuko ditu. Volkswageneko presidentek Iruñeko lantegiak Alemaniako ibilgailu faktoriek duten besteko kalitatea lortu duela ziurtatu zuen, Urralbururekin izandako elkarriketan / 14

Guido Bontenmpi



Guido Bontenmpi Carrera taldeko txirrindulariak Espainiako Itzuliaren berrogeitaseigarren edizioan lortzen duen bigarren garaipena eskuratu zuen atzo Santanderren. Bontenmpi eta beste zortzi gizonen segundu batzutako aldea atera zioten tropel nagusiari / 21

EHuko Klaustroko Mahaia



Leioako kanpusean atzo hasitako klaustroa gelditu eta bertan behera uztea erabaki zuen Euskal Herriko Unibertsitateko klaustroko mahaiak, ikasleen ordezkariak 'Barbera kanpora' zioen kamiseta jantzita zeramalak. Mahaiak hirurogei minutuko epea eman zion beroni errektorearen dimisioa eskatzen zuen kamisetarik gabe azaltzeko. Eskaria bete ezean, batzar unibertsitarioa suspenditzea erabaki zuen / 9

Juan Jose Laborda




Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) legeproiektuaren bozketa bertan behera utzi eta errepikatzea erabaki zuen Espainiako Senatuko mahaiak, «komenientzi politikoz». Zenbait senatarik birritan botatu zutela erakusten zuten argazkiak izan arren, Juan Jose Laborda Ganbarako lehendakaria botazioa irregularra izatearen aldeko frogarik ez dagoela esan zuen / 16

Eneko Landaburu: «Gaixotasunik larriena nork bere kasa pentsatzeari dion beldurra da»

J.C. CANTERA / BILBO

«Zer da azken batean gaixotzen gaituena?» bere buruari galdetuz hasi zaigu Eneko Landaburu mediku bilbotarra bere bizitzaren nondik norakoak azaltzen. Gaixotasunaren azken buruko arrazoiak agerian uzteko egindako bilaketa honetan, medikuntzaren ohizko teoriak baztertu eta Naturismo eta Higienismoaren bideetatik abiatu zen. Gaixotasunaren iturriak, Naturari egindako erasoetan, zenbait pentsamoldeetan, kultura mota batean, eraso egiten digun gizarte eredu honetan aurkitu ditu berak. «Badaude pentsakera batzuk, bizitzeko modu batzuk fisikoki eta psikologikoki gaixotzen gaituztenak». Izateko arrazoiak galdu dugula pentsatzen du. «Bizitzaren ikuspegi nahastua dugu eta ez dugu ikusten ez gure hasiera ez bukaera». Eneko Landabururen ustez, gure elikadurak ez du batere funtsik, eta Iparraldean kontsumitzen dugun haragi mordoak Hegoaldean bizi duten gosea areagotzen duela dio. «Osasuntsu bizitzeko arazorik handiena jendea bera da. Gizakiak ahalmen handiak ditu baina ez ditu erabiltzen, beldurtuta agian. Honela, gaixotasunik larriena jendeak bere kasa pentsatzeari dion beldurra da». Gizakiak badiu bera bakarrik sendatzeko baliabideak, Landabururen ustez. «Gorputza ez da hildako makina bat; izaki biziduna da, azkarra, hobetzen saiatzen dena. Bizirik irauteko senak sendatzera bultzatzen du. Arazoa



MYRIAM GARTZIA

da etsituta gaudela, daukagun bizimoduak ez gaituela asetzen —gehitu du—. Gure portaerak

askotan ez zaizkigu gustatzen eta ez dakigu nola aldatu. Azalpen bat eman behar diogu

SOSLAIA

Medikuntzan txiripaz

Medikua izango zenik ez zeukan guztiz argi, «saskibaloian jaurtiketa librearekin eginez hartu bait nuen erabakia. 'Kanastara' baloia jaurti eta medikuntza irten zen, gehiegi erakartzen ez ninduen arren». Ikasketetaz laster aspertuta, hezkuntzaren munduaz kezkatzen hasi zen, eta ijitoei irakurri eta idazten irakasteari ekin zion. Naturismoa aitona bidez ezagutu zuen. «Aitona mediku naturista batek sendatu zuen behin, eta bazituen etxean liburu batzuk. Bertan hasi nintzen naturismoaz arduratzen».

LERRO GUTXITAN

ETA BIHAR

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ez omen dago

Hiritar gehienek ustez, oraindik orain ezin dira parekatu gizon eta emakumezkoen bizitza sozial eta politikoa. Hauxe da CIRESeK egindako azken txostenak ezagutzera eman duena. Sexu eta adin desberdintasunak eragindako diskriminazioak aztertzea zuen helburutzat ikerketa honen. Elkarriketatutako lau emakumeetarik batek dioenez, ez da gaur irtetzerako ausartzen emakumea delako; bostetik batek dio, behin baino gehiagotan desiratu izan duela gizonetako izatea; hamarretik batek eraso sexualak izan ditu lanean eta beste honenbestek tratatu txarrak jasotzen ditu bere bikotearengandik.

Inkesta beraren arabera, hiritarren % 80k dio, gazte, emakume eta edadetuak duela 30 urte baino hobeago bizi direla, eta gizarteak errespetu handiagoz tratatzen dituela. Halere, gehiengoaren iritziz politikoez hantekunde garaian bakarrik hartzen dituzte kontutan aipatu giza taldeak.



AMODIOZKO istorio bat da hau. Otsoek oso modu berezia dute beren arteko maitasuna adierazteko. Argazkia ikusita, edonork pentsa dezake gorroto diotela elkarri edo muturjoka daudela, haserreturik, batak besteari egundokoak esaten. Alderantziz, elkar maite dute asko, lausengu eta maitasunezko hitzak esaten dizkiote elkarri. Beraz, maitakorrak ere izan daitezke, hiltzaile ospea duten arren.

Agure batek bere buruaz beste egin zuen atzo Sopelan

Laurogeitazortzi urteko agure batek bere buruaz beste egin zuen atzo Sopelan (Bizkaian). Luciano C.L. urkatuta aurkitu zuten atzo bere etxebizitzan, Atxabiribil auzoan. Ertzaintzak goizeko hamaikak aldera izan zuen gertatutakoaren berri. Gertakizunaren lekura iritsi eta lehenik hildakoaren senitartekoak oharerazi zituzten. Hauek berehala azaldu ziren bertan eta baita mediku forentseare.

Gorpua altxa eta Basurtoko ospitalera eraman zuten. Gertakaria argituko dituen ikerketak egiten hasia da Ertzaintza dagoeneko.

Alproja taldea musika orrialdeetan

EGUNKARIAko musika orrialde bereziak erreportaiez beteta datozkigu bihar: batetik, Alproja taldearen inguruko erreportaia zabala izango du. Lehenengo maxia kalera-tu berri du musika talde honek. Luhartz disketearen babesarekin. Horretaz gainera, Goodfathers eta Cris Spedding taldeei buruzko lanak ere izango dituzte. Izan ere, datorren asteburuan bi talde atzerriar hauen kontzertua izango dugu Euskal Herrian.

ONCE

ASTEARTEA
ASTEAZKENA
OSTEGUNA
KUPOTZARRA
OSTIRALA

ASTELEHENA

21.105